

Aniztasun Biologikoari buruzko Hitzarmena

Itungileek,

Aniztasun biologikoaren berezko balioaz jakitun eta aniztasun biologikoaren eta bere osagaien balio ekologiko, genetiko, sozial, ekonomiko, zientifiko, kultural eta estetiko eta hezkuntzarako eta dibertimenduzko balioaz jakitun; halaber, biosferaren bizitzarako beharrezkoak diren sistemak garatzeko eta mantentzeko aniztasun biologikoaren garrantziaz jakinaren gainean egonda; aniztasun biologikoaren kontserbazioa gizateria osoaren interes komuna dela baieztatuta; estatuek beren baliabide biologikoekiko eskubide subiranoa dutela berretsiz; halaber, estatuak beren aniztasun biologikoa kontserbatzearen eta baliabide biologikoak jasangarritasunez erabiltzearen arduradunak direla berretsiz; giza jardueren ondorio zehatza aniztasun biologikoaren murrizketa nabarmena dela eta arduratuta; aniztasun biologikoari buruzko informazio eta ezagutza falta orokorraz jakitun eta neurri egokiak planifikatzeko eta aplikatzeko oinarrizko akordioa lortzeko gaitasun zientifiko, tekniko eta instituzionalak garatzeko behar larriaz jakitun; aniztasun biologikoaren murrizketaren edo galeraren arrazoiak jatorrian bertan aurreikustea, prebenitzea eta aurre egitea ezinbestekoa dela konturatuta; aniztasun biologikoa murriztearen edo galtzearen arriskua dagoenean, mehatxu hori ekiditeko edo ahalik eta gehien murrizteko neurriak atzeratzeko arrazoi gisa ez dela froga zientifiko nabarien falta arrazoitu behar ikusita; halaber, aniztasun biologikoa kontserbatzeko ezinbesteko eskaerak, batetik, ekosistemen eta habitat naturalen in situ kontserbazioa eta, bestetik, espezie bideragarrien populazioak beren inguru naturaletan mantentzea eta errekuiperatzea direla ohartuta; ex situ neurriak, ahal izanez gero jatorrizko lurraldean, hartzea ere garrantzitsua dela konturatuta; baliabide biologikoetan oinarritutako bizitza-sistema tradizionalak dituzten tokiko komunitate eta indigenen populazio askoren dependentzia estu eta tradizionala onartuta eta aniztasun biologikoaren kontserbaziorako eta bere osagaien erabilera jasangarrirako ezagutza tradizionalen, berrikuntzen eta jarduera egokien erabileratik eratorritako onurak berdin banatzeko egokitasuna onartuta; halaber aniztasun biologikoaren kontserbazio eta erabilera jasangarrian emakumeak betetzen duen funtzio erabakigarria onartuta eta aniztasun biologikoaren kontserbaziorako politikak formulatzeko eta gauzatzeko garaian emakumeak maila guztietan parte hartzeko beharra dagoela baieztatuta; estatuen eta gobernuarteko erakundeen eta aniztasun biologikoa kontserbatzeko eta bere osagaiak era jasangarrian erabiltzeko gobernu kanpoko sektorearen arteko nazioarteko, lurraldeko eta munduko lankidetzaren garrantzia eta beharra nabarmenduta; batetik, finantza-baliabide nahikoak, berriak eta osagarriak emateak eta, bestetik, teknologia egokietara sarbide egokia izateak aniztasun biologikoa galtzeari behar bezala aurre egiteko munduko gaitasuna nabarmen alda dezaketela espero behar dela onartuta; garapen bidean dauden herrialdeen beharrei erantzuteko xedapen bereziak barne - finantza-baliabide berriak eta osagarriak ematea eta teknologia egokietara sarbide egokia izatea- onartzea beharrezkoa dela onartuta; gai honen inguruan gutxien aurreratuta dauden herrialdeen eta estatu uhartetar txikien baldintza bereziak gogoan hartuta; aniztasun

biologikoa kontserbatzeko inbertsio nabarmenak egitea ezinbestekoa dela eta inbertsio horiek berekin onura ekologiko, ekonomiko eta sozial ugari izatea espero dela onartuta.

Garapen ekonomiko eta soziala eta pobreziaren deuseztapena garapen bidean dauden herrialdeen oinarritzko eta funtsezko lehentasunak direla onartuta, aniztasun biologikoaren kontserbazio eta erabilera jasangarriek hazten ari den munduko populazioaren elikagaien, osasunaren eta beste gai batzuen inguruko beharrak asetzeko (horretarako baliabide genetikoak eta teknologikoak eskuratzeko aukera izatea eta baliabide eta teknologia horietan parte hartzea ezinbestekoak dira) berebiziko garrantzia dutela gogoan hartuta, azken batean, aniztasun biologikoaren kontserbazioak eta erabilera jasangarriak estatuen arteko adiskidetasun-harremana sendotu egingo dutela eta gizaterian bakea lortzeko lagunduko dutela gogoan hartuta; aniztasun biologikoa kontserbatzeko eta bere osagaiak jasangarritasunez erabiltzeko nazioarteko akordioak sendotzea eta osatzea desiratuta eta aniztasun biologikoa uneko eta etorkizuneko belaunaldien onerako era jasangarrian kontserbatu eta erabili behar dela erabakita,

ondorengo erabaki dute:

1. ARTIKULUA: Helburuak

Hitzarmen honen helburuak dagozkien xedapenen arabera lortu behar dira, eta hauek dira: aniztasun biologikoaren kontserbazioa eta bere osagaien erabilera jasangarria. Hirugarren helburua hauexek dira: baliabide horiekiko eta teknologia horiekiko eskubideak kontuan hartuta, besteak beste, baliabide horiek behar bezala eskuratzeko aukeraren bidez eta teknologiek transferentzia egokiaren bidez eta finantzazio egokiaren bidez baliabide genetikoak erabiltzearen ondorioz sortutako onurak berdintzea eta behar bezala banatzea.

2. ARTIKULUA: Erabilitako hitzak

Hitzarmen honetako erabakietan:

"Babestutako gunea" honakoa esan nahi du: geografikoki definitutako gunea, kontserbazioko helburuak lortzeko izendatu edo arautu eta administratu dena.

"Bioteknologia" hauexek dira: sistema biologikoak eta organismo biziak edo beren eratorriak erabilera zehatz baterako produktuak edo prozesuak sortzeko edo aldatzeko erabiltzen dituzten aplikazio teknologikoak.

"In situ baldintza" honakoa esan nahi du: batetik, ekosistema eta habitat naturalen barruan eta, bestetik, etxekotutako edo landutako espezieen kasuan, beren ezaugarri espezifikoak garatu dituzten inguruetan baliabide genetikoak egoteko baldintzak.

"Ex situ kontserbazioa" hauexek dira: beren habitat naturaletatik kanpo dauden aniztasun biologikoaren osagaien kontserbazioa.

"In situ kontserbazioa" hauxe da: ekosistema eta habitat naturalen kontserbazioa eta populazio bideragarrien berreskuratzea beren inguru naturaletan eta, etxekotutako eta landutako espezieen kasuan, beren behar espezifikoak garatu dituzten inguruetan.

"Aniztasun biologikoa" hauxe da: edozein jatorritako organismo bizidunen aldakortasuna. Besteak beste, honako gune hauek izango lirateke jatorriak: lurreko eta itsasoko ekosistemak eta uretako beste ekosistema batzuk eta osagai direneko gune ekologikoak. Espezieen artean espezie bakoitzaren barruan eta ekosistemetan dagoen dibertsitatea hartu behar da kontuan.

"Ekosistema" hauxe da: Landareen, animalien eta mikroorganismoen komunitateen eta unitate funtzional gisa jokatzen duen beren inguru bizigabearen konplexu dinamikoa.

"Espezie etxekotua eta landua" hauxe da: bere garapen prozesuan gizakiek beren beharrak asetzeko eragindako espeziea.

"Habitat"ak honakoa esan nahi du: organismo bat edo populazio bat naturalki bizi den lekua edo inguru-mota.

"Material genetikoa" honakoa esan nahi du: landare, animalia, mikrobio edo antzeko jatorriko materialak dira eta herentziako unitate funtzionalak dituzte.

"Ekonomia-integratioko lurralde mailako erakundea" hauxe da: lurralde jakin bateko estatu subiranoek osatutako erakundea; erakunde honetako kideek Hitzarmen honek erabakitako kompetentziak utzi dituzte talde honen esku eta behar adina ahalmen jaso du, barruko prozeduren arabera, Hitzarmena sinatzeko, berresteko, onartzeko edo onesteko edo berari atxikitzeko.

"Baliabide genetikoen jatorrizko herrialdea" hauxe da: baliabide genetikoak in situ baldintzatan dituen herrialdea.

"Baliabide genetikoak ematen dituen herrialdea" hauxe da: in situ jatorrietatik edo herrialde horretakoak izan ala ez izan ex situ jatorrietatik lortutako baliabide genetikoak - basoko eta etxeko espezieen populazioak barne- ematen dituen herrialdea da.

"Baliabide biologikoak" honakoa esan nahi du: baliabide genetikoak, organismoak edo beren zatiak, populazioak edo gizateriarentzako benetako balioa edo erabilera duen ekosistemetako edozein osagai biotiko.

"Baliabide genetikoak" hauxe dira: benetako balioa edo balio potentziala duen material genetikoak.

"Teknologia" hitzaren barruan bioteknologia sartzen da.

"Erabilera jasangarria" hauxe da: Aniztasun biologikoko osagaiak epe luzera aniztasun biologikoa gutxitzea ez eragiteko moduan eta erritmoan erabiltzea; honela uneko eta etorkizuneko belaunaldien beharrak eta helburuak asetzeko aukerak mantendu egiten dira.

3. ARTIKULUA: Printzipioa

Nazio Batuen gutunaren eta nazioarteko eskubideen printzipioen arabera, estatuek eskubide subirano osoa dute ingurugiroko politikak aplikatzeko garaian beren baliabideak ustiatzeko. Horretaz gain, beren jurisdikzioaren barruan edo beren kontrolpean egindako jarduerak beste estatu batzuetako inguruei edo beren eskumen nazionaletik kanpoko guneei kalterik ez diela egingo segurtatu behar dute nahitaez.

4. ARTIKULUA: Jurisdikzio-barrutia

Beste estatuen eskubideak kontuan hartuta eta Hitzarmen honetan espreski beste zerbait adierazten ez bada, Hitzarmenaren xedapenak itungile bakoitzaren arabera aplikatuko dira:

- a) aniztasun biologikoaren osagaien kasuan, jurisdikzio nazionalaren mugen barruko guneean, eta
- b) bere jurisdikzioan edo kontrolpean egindako prozesuen eta jardueren kasuan eta, beren eraginak non sortzen diren kontuan hartu gabe, jurisdikzio nazionalaren barruko eta kanpoko guneean.

5. ARTIKULUA: Lankidetzat

4. artikuluko 1. paragrafoko g) puntuan aipatzen diren konpromisoak aurrera eramateko garaian, kideek:

1. Dagokienaren arabera, ikerketa-jarduerak, datuen bilketa eta behaketa sistematikoa definitzea, gauzatzea, ebaluatzea edo finantzatzea helburu dituzten nazioarteko eta gobernuarteko erakundeak edo sareak eta programak babestu eta gehiago garatuko dituzte. Horretarako bitan edo gehiagotan egindako ahaleginak gutxitzeko beharra kontuan hartu beharko dute;
2. Bereziki garapen bidean dauden herrialdeetan, bai behaketa sistematikoa, bai ikerketa zientifikoko eta teknikoko gaitasun eta bitarteko nazionalak sendotzeko, jurisdikzio nazionaletik kanpo dauden guneen inguruko datuak edonoren eskura egon daitezzen sustatzeko eta datu horien trukea eta azterketa bultzatzeko nazioarteko eta gobernuarteko ahalegina babestuko dute; eta
3. Bereziki garapen bidean dauden herrialdeen behar eta ardurak hartuko dituzte kontuan eta a) eta b) puntuetan aipatzen diren ahaleginetan parte hartzeko bitarteko eta gaitasun endogenoak hobetzeko elkarlana egingo dute.

6. ARTIKULUA: Kontserbaziorako eta erabilera jasangarrirako neurri orokorrak

Itungile bakoitzak, bere baldintzen eta gaitasunen arabera:

- a) Aniztasun biologikoa kontserbatzeko eta jasangarritasunez erabiltzeko estrategia, plan eta programa nazionalak egingo ditu edo martxan dauden strategiak, planak edo programak horretarako egokituko ditu. Estrategia, plan eta programa

horietan, besteak beste, itungile interesatuari dagozkion eta Hitzarmen honetan ezarrita dauden neurriak islatu beharko dira, eta

- b) Ahal den neurrian eta dagokionaren arabera, aniztasun biologikoaren kontserbazioa eta erabilera jasangarria sektoreko edo sektorearteko planetan, programatan eta politiketan sartuko du.

7. ARTIKULUA: Identifikazioa eta jarraipena

Itungileek, ahal duen neurrian eta dagokionaren arabera, bereziki 8, 9 eta 10. artikuluetako helburuak betetzeko:

- a) Beren kontserbaziorako eta erabilera jasangarrirako garrantzitsuak diren aniztasun biologikoaren osagaiak identifikatuko dituzte; horretarako, I. erankinean aipatzen den zerrenda hartu beharko dute kontuan;
- b) Laginketaren eta beste teknika batzuen bidez, a) puntuaren arabera identifikatutako aniztasun biologikoko osagaien jarraipena egingo dute; kasu berezia egingo diete kontserbatzeko berehalako neurriak hartzea behar duten osagaiei eta erabilera jasangarrirako aukera gehien dituztenei;
- c) Aniztasun biologikoaren kontserbazioan eta erabilera jasangarrian eragin kaltegarriak dituzten edo izan ditzaketen prozesuak eta kategoriak identifikatuko dituzte eta, laginketaren eta beste teknika batzuen bidez, eragin horiek jarraituko dituzte, eta
- d) Edozein mekanismoren bidez, artikulua honen a), b) eta c) puntuen arabera identifikatutako eta jarraitutako jardueretatik eratorritako datuak mantenduko eta antolatuko dituzte.

8. ARTIKULUA: "In situ" kontserbazioa

Itungileek, bere baldintzen eta gaitasunen arabera:

- a) Gune babestuen edo aniztasun biologikoa kontserbatzeko neurri bereziak hartzea beharrezkoa duten guneen sistema onartuko dute;
- b) Hala behar denean, gune babestuak edo aniztasun biologikoa kontserbatzeko neurri bereziak hartzea beharrezkoa duten guneak aukeratzeko, ezartzeko eta antolatzeko gidalerroak prestatuko dituzte;
- c) Aniztasun biologikoa, gune babestuetan edo gune horietatik kanpo, kontserbatzeko garrantzitsuak diren baliabide biologikoak arautuko eta administratuko dituzte, beren kontserbazioa eta erabilera jasangarria segurtatzeko;
- d) Ekosistemak eta habitat naturalak babestea eta inguru naturaletako espezieen populazio bizigaia mantentzea sustatuko dute;
- e) Ingurugiroaren aldetik garapen egokia eta jasangarria sustatuko dituzte babestutako guneen inguruko eremuetan, gune horien babesa areagotzeko;
- f) Ekosistema degradatuak birgaituko eta berreskuratuko dituzte eta mehatxatutako espezieak berreskuratzea sustatuko dute, besteak beste, antolaketako planak eta estrategiak eratzearen eta aplikatzearen bidez;

- g) Bioteknologiaren emaitza gisa aldatutako organismo biziak erabiltzearen eta askatzearen ondorioz sortutako arriskuak erregulatzeko, administratzeko edo kontrolatzeko neurriak eratuko edo mantenduko dituzte, izan ere, baliteke horrek aniztasun biologikoaren kontserbazioan eta erabilera jasangarrian eragina izan ditzaketen ingurugiroko aurkako ondorioak izatea. Giza osasunean sor ditzakeen arriskuak ere kontuan hartu behar dira;
- h) Ekosistemei, habitatei edo espezieei mehatxu egiten dieten espezie exotikoak sartzea ekidindo dute eta espezie horien sarrera kontrolatu edo deuseztatu egingo dute;
- i) Aniztasun biologikoaren kontserbazioaren eta bere osagaien erabilera jasangarriaren egungo erabilerak bateratzeko behar diren baldintzak ezartzen saiatuko dira;
- j) Nazioko legeriaren arabera, aniztasun biologikoa kontserbatzeko eta jasangarritasunez erabiltzeko bizimodu tradizional egokiak dituzten komunitate indigenen eta tokian tokiko komunitateen ezagutzak, berrikuntzak eta jarduerak errespetatu, babestu eta mantendu egingo dituzte, eta ahalik eta gehien aplikatzea sustatuko dute, ezagutza, berrikuntza eta jarduera horien berri duten guztien onarpenarekin eta parte-hartzearekin. Horrez gain, ezagutza, berrikuntza eta jarduera horien erabileratik eratorritako onurak berdina bana daitezten sustatuko dute;
- k) Mehatxatutako espezieak eta populazioak babesteko behar den legeria edota arautzeko xedapenak eratu edo mantenduko dituzte;
- l) 7. artikularen arabera aniztasun biologikoarentzako aurkako eraginen bat zehazten denean, ekintza egokientzako prozesuak eta mailak arautuko eta antolatuko dituzte, eta
- m) Artikulu honen a) puntutik l) punturaino aipatzen den in situ kontserbaziorako, bereziki garapen bidean dauden herrialdeei finantza-laguntza eta beste mota bateko laguntza emateko elkarlana egingo dute.

9. ARTIKULUA: "Ex situ" kontserbazioa

Itungileek, ahal duten neurrian eta dagokienaren arabera, eta in situ neurriak osatzeko:

- a) Aniztasun biologikoko osagaiak ex situ kontserbatzeko neurriak hartuko dituzte, bereziki osagai horien jatorrizko herrialdean;
- b) Landareen, animalien eta mikroorganismoen ikerketarako eta ex situ kontserbaziorako instalazioak martxan jarriko eta mantenduko dituzte, ahal izanez gero baliabide genetikoen jatorrizko herrialdean;
- c) Batetik, mehatxatutako espezieak berreskuratzeko eta birgaitzeko eta, bestetik, espezie horiek beren habitatetan baldintza egokietan berriro sartzeko neurriak hartuko dituzte;
- d) Ex situ kontserbaziorako habitat naturalen baliabide biologikoen bilketa arautuko eta kudeatuko dute, artikulu honen c) puntuaren behin-behineko ex situ neurriak beharrezkoak direnean izan ezik, ekosistemak eta espezieen in situ populazioak ez mehatxatzeko, eta
- e) Batetik, artikulu honen a) puntutik d) puntura aipatzen den ex situ kontserbaziorako finantza-laguntza eta beste mota batekoa emateko eta, bestetik, garapen bidean

dauden herrialdeetako ex situ kontserbaziorako instalazioak eratzeko eta mantentzeko elkarlana egingo dute.

10. ARTIKULUA: Aniztasun biologikoaren osagaien erabilera jasangarria

Honen bidez exekuzioko organo ordezkatzailerak eratuko da, eta bere lana Kideen Biltzarrari Konbentzioa eragingarritasunez betetzearen inguruko ebaluazioan eta azterketan laguntzea da. Organo honetan kide guztiek parte har dezakete eta klimaren aldaketarekin lotura duten gaietan aditu diren gobernuetako ordezkariak osatuko dute. Aldian-aldian bere lanaren alde guztiei buruzko txostena aurkeztuko dio Kideen Biltzarrari.

Kideen Biltzarraren zuzendaritzapean, organo honek:

- a) 12. artikuluko 1. paragrafoaren arabera transmititutako informazioa aztertuko du, klimaren aldaketaren inguruko ebaluazio zientifiko berrien arabera kideek hartutako neurrien gehitutako eraginak batera ebaluatzeko;
- b) 12. artikuluko 2. paragrafoaren arabera transmititutako informazioa aztertuko du, 4. artikuluko 2. paragrafo d) puntuan erabakitako azterketak egiteko garaian Kideen Biltzarrari laguntzeko; eta
- c) Dagokionaren arabera, Kideen Biltzarrari bere erabakiak prestatzen eta aplikatzen lagunduko dio.

11. ARTIKULUA: Pizgarriak

Itungileek, ahal duten neurrian eta dagokienaren arabera, aniztasun biologikoko osagaien kontserbaziorako eta erabilera jasangarrirako pizgarri gisa jokatuko duten neurri ekonomiko eta sozialki egokiak hartuko dituzte.

12. ARTIKULUA: Ikerketa eta trebakuntza

Itungileek, garapen bidean dauden herrialdeen behar bereziak kontuan hartuta:

- a) Aniztasun biologikoaren eta bere osagaien identifikazioaren, kontserbazioaren eta erabileraren inguruan hezkuntza- eta trebakuntza-programa zientifikoak eta teknikoak eratu eta mantenduko dituzte eta helburu hori lortzeko babesa emango dute, garapen bidean dauden herrialdeen behar zehatzetan oinarrituta;
- b) Aniztasun biologikoaren kontserbazioari eta erabilera jasangarriari ekarpenak egiten dizkieten ikerketak sustatuko eta bultzatuko dituzte, bereziki garapen bidean dauden herrialdeetan, besteak beste, aholkularitza zientifikoko, teknikoko eta teknologikoko organo ordezkatzaileraren gomendioen inguruan Kideen Biltzarrean hartutako erabakiak jarraituta, eta
- c) 16, 18 eta 20. artikuluen xedapenen arabera, aniztasun biologikoaren ikerketen inguruko aurrerapen zientifikoaren erabilera sustatuko dute, baliabide biologikoak kontserbatzeko eta jasangarritasunez erabiltzeko metodoak egiteko. Horrez gain, alor horretan elkarlana egingo dute.

13. ARTIKULUA: Hezkuntza eta kontzientzia publikoa

Itungileek:

a) Aniztasun biologikoa kontserbatzearen eta horretarako behar diren neurrien garrantzia uler dadin eta hori komunikabideen bidez zabal dadin sustatuko eta bultzatuko dute. Horrez gain, gai horiek hezkuntza-programetan sartzea bultzatuko dute, eta

b) Dagokienaren arabera, aniztasun biologikoaren kontserbazioaren eta erabilera jasangarriaren alorrean, hezkuntza-programak egiteko eta jendea sentsibiltzako elkarlana egingo dute beste estatuekin eta nazioarteko erakundeekin.

14. ARTIKULUA: Inpaktua ebaluatzea eta aurkako inpaktua ahalik eta gehien murriztea

Itungileek, beren baldintzen eta gaitasunen arabera:

- a) Aniztasun biologikoan aurkako eragin nabarmenak izan ditzaketen proposatutako proiektuen ingurugiro-inpaktuaren ebaluazioa eskatzeko prozedurak jarriko dituzte martxan, eragin horiek ahalik eta gehien murrizteko edo ekiditeko. Bestalde, hala dagokienean, prozedura horietan jendeak parte har dezan utziko dute;
- b) Aniztasun biologikoan aurkako eraginak izan ditzaketen programen eta politiken ingurugiroko ondorioak behar bezala kontuan hartzen dituztela segurtatzeko akordio egokiak jarriko dituzte martxan;
- c) Beste estatu batzuetan edo norberaren jurisdikzio nazionaletik kanpoko dauden lekuetan aniztasun biologikoaren aurkako eraginak izango dituzten eta norberaren jurisdikzioan edo kontrolpean egingo diren jardueren inguruan jakinarazpena, informazioaren trukea eta kontsultak sustatuko dituzte. Horretarako, dagokienaren arabera, alde askoren eta bi alderen arteko akordioak eta lurralde mailako akordioak lortzea bultzatuko dute;
- d) Norberaren jurisdikzioaren barruan edo kontrolpean aniztasun biologikoarentzako berehalako arriskuak edo arrisku larriak sortzen direnean edo aniztasun horri beste estatuen jurisdikzioan edo norberaren jurisdikzio nazionaletik kanpo kalteak eragiten zaizkionean, arrisku edo kalte horiek jasan ditzaketen estatuei berehala jakinaraziko zaie. Horretaz gain, arrisku edo kalte horiek prebenitzeko edo ahalik eta gehien murrizteko neurriak hartuko dira, eta
- e) Aniztasun biologikoan kalte larriak eta berehalako kalteak sor ditzaketen jarduera edo gertaera naturalekin edo beste era batekoekin lotutako larrialde egoeretakoko neurriei buruzko akordio nazionalak proposatuko dituzte. Neurri nazional horiek osatzeko nazioarteko lankidetzak bultzatuko dute eta, hala dagokienean eta estatuekin eta ekonomia-integrazioarako lurralde mailako erakunde interesatuekin bat, ustekabeko egoeretakoko plan bateratuak eratuko dituzte.

Aurrera eramaten dituen ikerketak oinarri hartuta, aniztasu biologikoari sortutako kalteen arduren eta konponketen inguruko gaiak eta leheneratzeen eta kalte-ordainen inguruko gaiak aztertuko dituzte, ardura hori barruko gaia denean izan ezik.

15. ARTIKULUA: Baliabide genetikoak eskuratzea

Estatuek beren baliabide naturalengan dituzten eskubide subiranoak onartuta, baliabide genetikoetara sarbidea arautzeko lana gobernu nazionalena da eta legeria nazionalaren barruan sartuta dago.

Itungile guztiak beste itungile batzuek baliabide genetikoetara sarbidea izan dezaten errazteko baldintza egokiak sortzen saiatuko dira, ingurugiroko erabilera egokia emateko. Horrez gain, Hitzarmen horren helburuak betetzeko aurkako murrizketarik ez jartzen saiatuko dira.

Hitzarmen hori betetzeko, artikulua honetan eta 16. eta 19. artikuluetan aipatzen diren Itungileak emandako baliabide genetikoak baliabide horien jatorri diren Itungileek emandakoak edo Hitzarmen honen arabera baliabide genetikoak eskuratu dituzten kideek emandakoak bakarrik dira.

Sarbidea izatea lortzen denean, elkarrekin hitzartutako baldintzen arabera izango da eta artikulua honetan adierazten dena bete beharko du.

Baliabide genetikoetara sarbidea baliabideak ematen dituen itungile horrek aurrez onartutakoaren arabera izango da, kide horrek beste zerbait erabakitzen ez badu.

Itungileek beste itungileek emandako baliabide genetikoetan oinarritutako ikerketa zientifikoak sustatzen eta egiten saiatuko da, eta itungile horiek eta, ahal den neurrian, ikerketa horietan parte hartuko dute.

Itungileek, dagokienaren arabera, neurri legislatiboak, administratiboak eta politikoak hartuko dituzte, 16. eta 19. artikulua kontuan hartuta eta, hala behar denean, 20. eta 21. artikuluetan aurreikusitako finantza-mekanismoen bidez, batetik, ikerketako eta garapeneko jardueren emaitzak eta, bestetik, baliabide genetikoaren erabilera komertzialaren eta beste era bateko erabileraren onurak baliabide horiek ematen dituen itungilearekin era justuan eta berdinean banatzeko. Banaketa hori egiteko modua bi aldeek adostuko dute.

16. ARTIKULUA: Teknologiarako sarbidea eta teknologien transferentzia

Teknologiaren barruan bioteknologia sartzen dela onartuta, teknologiarako sarbidea eta itungileen arteko transferentzia Hitzarmen honen helburuak lortzeko ezinbesteko elementuak direla kontuan hartuta eta artikulua honen xedapenen arabera, itungileek ondorengo konpromisoa hartu dute: beste itungileei aniztasun biologikoaren kontserbaziorako eta erabilera jasangarrirako beharrezkoak diren teknologietara edo baliabide genetikoak erabiltzen

dituzten eta ingurugiroari kalterik eragiten ez dioten teknologietara sarbidea eta teknologia horien transferentzia segurtatzeko edota bidea errazteko konpromisoa.

Garapen bidean dauden herrialdeek teknologiak eskuratzeko duten aukera eta herrialde horietara teknologien transferentzia -1. paragrafoan aipatzen direnak- baldintza zuzenetan eta aldeko baldintzetan segurtatuko edota bideratuko dira eta adostutako lehentasunezko baldintzak eta baldintza emakidunak ere kontuan hartuko dira; hala behar denean, 20. eta 21. artikuluetan adierazten diren finantza-mekanismoak ere kontuan hartuko dira. Patenteei eta jabego intelektualaren eskubideei lotutako teknologiaren kasuan, teknologia horretara sarbidea eta bere transferentzia jabego intelektualaren eskubideen babes egokia eta eragingarria kontuan hartuta eta berarekin bateragarri izateko moduan segurtatuko dira. Paragrafo hau aplikatzeko garaian, artikuluko honen 3, 4 eta 5. paragrafoak ere hartuko dira kontuan.

Itungileek, dagokienaren arabera, neurri legislatiboak, administratiboak eta politikoak hartuko dituzte, itungileei, bereziki baliabide genetikoak ematen dituzten garapen bidean dauden herrialdeei, material hori erabiltzen duen teknologia eskuratzeko aukera eta teknologia horren transferentzia segurtatzeko, alde guztiak ados jarrita. Teknologia horren barruan, patenteek eta jabego intelektualaren eskubideek babestutako teknologia ere sartuko litzateke. Hala behar izanez gero, 20. eta 21. artikuluetako xedapenen bidez, nazioarteko eskubideen arabera eta artikuluko honen 4. eta 5. paragrafoak kontuan hartuta eramango litzateke aurrera.

Itungileek, dagokienaren arabera, neurri legislatiboak, administratiboak eta politikoak hartuko dituzte, sektore pribatuak 1. paragrafoan aipatzen den teknologiarako sarbidea, bere garapen bateratua eta gobernu erakundeek eta garapen bidean dauden herrialdeetako sektore pribatuaren onerako transferentzia erraztu dezan. Honen inguruan, artikuluko honen 1, 2 eta 3. paragrafoetan ezarritako betebeharrak men egingo die.

Patenteek eta jabetza intelektualeko beste eskubide batzuek Hitzarmen hau aplikatzeko garaian eragina izan dezaketela onartuta, itungileek gai honen inguruan elkarlana egingo dute nazioko legeriaren eta nazioarteko eskubideen arabera, eskubide horiek Hitzarmen honen helburuak babes ditzaten eta ez daitezela aurkakoak izan zaintzeko.

17. ARTIKULUA: Informazioa trukitzea

Itungileek publikoki eskura dauden iturri guztien aniztasun biologikoaren kontserbazioari eta erabilera jasangarriari buruzko informazioaren trukea erraztuko dute; horretarako, garapen bidean dauden herrialdeen behar bereziak hartuko dituzte kontuan.

Informazioaren truke horretan ondorengoa ere sartuko da: batetik, ikerketa tekniko zientifikoaren eta sozioekonomikoaren emaitzen trukea eta, bestetik, trebakuntza- eta ikasketaprogramei, ezagutza espezializatuei eta ezagutza autoktonoei eta tradizionalei buruzko informazioa, beren kasa eta 16. artikuluko 1. paragrafoan aipatutako teknologiei lotuta. Horrez gain, bideragarria denean, informazioaren aberriratzea ere sartuko da.

18. ARTIKULUA: Lankidetzaz zientifikoa eta teknikoa

Itungileek nazioarteko lankidetzaz zientifikoa eta teknikoa sustatuko dute aniztasun biologikoaren kontserbazioaren eta erabilera jasangarriaren alorretan, hala behar izanez gero nazioarteko eta nazioarteko erakunde eskudunen bidez.

Itungileek Hitzarmen hau aplikatzeko garaian beste itungileekin, bereziki garapen bidean daudenekin, lankidetzaz zientifikoa eta teknikoa sustatuko dute, besteak beste, politika nazionalak garatzearen eta aplikatzearen bidez. Lankidetzaz hori sustatzeko garaian, kasu berezia egin behar zaio gaitasun nazionala garatzeari eta sendotzeari; hori giza baliabideen garapenaren eta erakundeak sortzearen bidez egingo litzateke.

Kideen Biltzarrak, bere lehen bileran, lankidetzaz zientifikoa eta teknikoa sustatzeko eta errazteko mekanismoak eratzeko modua zehaztuko du.

Legeria eta politika nazionalekin bat, itungileek teknologiaz garatzeko eta erabiltzeko lankidetzaz-moduak sustatuko eta garatuko dituzte Hitzarmen honen helburuak lortzeko, eta horien artean teknologia autoktonoak eta tradizionalak sartuko dituzte. Helburu hori lortzeko, itungileek langileak trebatzeko eta adituak trukatzeko lankidetzaz ere sustatuko dute.

Itungileek, hala erabakiz gero guztiak ados jarrita, Hitzarmen honen helburuak lortzeko teknologiaz egokiak garatzeko ikerketa-programa bateratuak eta enpresa bateratuak era daitezen sustatuko dute.

19. ARTIKULUA: Bioteknologiaren kudeaketa eta bere onuren banaketa

Itungileek, dagokienaren arabera, neurri legislatiboak, administratiboak edo politikoak hartuko dituzte, ikerketa horietarako baliabide genetikoak ematen dituzten itungileek, bereziki garapen bidean daudenek, bioteknologiari buruz egindako ikerketetan, eta ahal denean itun horietan, parte-hartze eragingarria segurtatzeko.

Itungileek emandako baliabide genetikoetan oinarritutako bioteknologiaren emaitzak eta onurak itungile horiek, bereziki garapen bidean daudenek, baldintza zuzen eta berdinetan eskuratzeko aukera segurtatzeko eta bultzatzeko, itungile bakoitzak neurri bideragarriak hartuko ditu. Sarbide hori kide guztiek adostutako baldintzek zehaztuko dute.

Kideek protokolo bat sortzeko beharra eta modua aztertuko dituzte. Protokolo horrek prozedura egokiak ezarri beharko ditu bioteknologiaren ondorio diren eta aniztasun biologikoaren kontserbaziorako eta erabilera jasangarriarako aurkako ondorioak izan ditzaketen organismo bizidun aldatuen transferentziaren, manipulazioaren eta erabileraren alorretan eta aurretik baimena ematea ere sartuko da.

Itungileek, zuzenean edo 3. paragrafoan aipatzen diren organismoak ematen dituzten eta bere jurisdikzioaren barruan dauden pertsona natural edo juridiko guztiei hala eskatuta, batetik, organismo horiek manipulatzeko itungile horrek eskatutako erabilerari eta segurtasunari buruzko araudiaren inguruko informazioa eta, bestetik, organismo horiek izan ditzaketen

aurkako eraginei buruzko informazioa emango dio organismo horiek sartu beharreko lurraldeko itungileari.

20. ARTIKULUA: Finantza-baliabideak

Beren gaitasunaren arabera, itungile guztiek finantza-babesa eta pizgarriak emateko konpromisoa hartzen dute; babes hori Hitzarmen honen helburuak lortzeko jardueri emango litzaieke, beren asmo, lehentasun eta programa nazionalen arabera.

Garatutako herrialde diren kideek finantza-baliabide berriak eta osagarriak emango dituzte garapen bidean dauden herrialdeek Hitzarmen hau betetzeko dituzten egin beharrak aurrera eramateko neurriak aplikatzeko garaian areagotu egiten diren hitzartutako gastuei aurrei egiteko aukera izan dezaten eta Hitzarmenaren xedapenen onurak balia ditzaten. Gastu horiek elkarrekin adostuta zehaztuko dituzte garapen bidean dauden kideek eta 21. artikuluan adierazten den egitura instituzionalak, Kideen Biltzarrak ezarritako politikaren, estrategiaren, lehentasun programatikoen, hautagarritasun-irizpideen eta Kideen Biltzarrak ezarritako gehitu daitezkeen gastuen zerrenda adierazlearen arabera. Beste kideek, merkatu-ekonomiara trantsizio-prozesuan dauden herrialdeak barne, beren borondatez onartu ahal izango dituzte garatutako herrialde diren kideen betebeharrak. Artikulu hau betetzeko, Kideen Biltzarrak, bere lehen bileran, garatutako herrialdeen zerrenda eta garatutako herrialdeen betebeharrak onartzen dituzten gainerako kideen zerrenda zehaztuko du. Kideen Biltzarrak aldian-aldian aztertuko du zerrenda hori eta hala behar bada aldatu egingo du. Halaber, beste herrialdeek eta iturriek beren borondatez egindako ekarpenak ere sustatuko ditu. Konpromiso horiek betetzeko, funtsen korrontea nahikoa, aurreikusteko modukoa eta aproposa izatea lortzea beharrezkoa dela kontuan hartuko da, baita gastuak zerrenda horretan dauden kide zergapekoen artean banatzeak duen garrantzia ere.

Garatutako herrialde diren kideek Hitzarmen hau aplikatzearekin lotura duten finantza-baliabideak eman ahal izango dituzte, alde biko eta alde askotako bideak eta lurralde mailako bideak erabilita, eta garapen bidean dauden herrialde diren kideek baliabide horiek erabiltzeko aukera izango dute.

Garapen bidean dauden herrialde diren kideek Hitzarmen honen betebeharrak zein neurritan beteko dituzten, ondorengoaren arabera izango da: garatutako herrialde diren kideek finantza-baliabideen eta teknologiaren transferentziaren inguruko beren betebeharrak zein neurritan betetzen dituzten. Horrez gain, gai horren inguruan garapen ekonomikoa eta soziala eta pobrezia arintzea garapen bidean dauden kideen lehentasun nagusiak direla kontuan hartuko da.

Finantzazioarekin eta teknologiaren transferentziarekin lotura duten neurrietan, kideek guztiz kontuan hartuko dituzte gutxien aurreratuta dauden herrialdeen behar zehatzak eta egoera berezia.

Halaber, itungileek aniztasun biologikoaren, bere banaketaren eta bere kokapenaren ondorio den menpekotasunaren arabera baldintza bereziak ere hartuko dituzte kontuan, garapen bidean dauden herrialdeetan, bereziki estatu uhartetar txikietan.

Garapen bidean dauden herrialdeen, lur elkorrak eta erdielkorrak dituzten herrialdeen, kostaldea eta gune menditsuak dituzten herrialdeen eta ingurugiroaren aldetik ahulenak diren herrialdeen egoera berezia ere hartuko da kontuan.

21. ARTIKULUA: Finantza-mekanismoak

Hitzarmen hau betetzeko, garapen bidean dauden kideei finantza-baliabideak diru-laguntza gisa edo mesede gisa emateko mekanismoa jarriko da martxan; mekanismo horren oinarritzko elementuak artikuluko honetan deskribatzen dira.

Hitzarmen honen arabera, mekanismoak Kideen Biltzarraren agintepean eta zuzendaritzapean arituko dira eta bera izango da arduraduna. Mekanismoaren eragiketarako Kideen Biltzarrak bere lehen bilera aukeratutako egitura instituzionalaren bidez gauzatuko dira. Hitzarmen hau betetzeko, Kideen Biltzarrak baliabide horiek eskuratzeko eta erabiltzeko politika, estrategia, lehentasun programatikoak eta irizpideak zehaztuko ditu. Ekarpenetan aurreikusteko moduko funtsen korrante nahikoa eta egokia izateko beharra kontuan hartu beharko da, 20. artikuluan adierazten den bezala, eta Kideen Biltzarrak aldian-aldian erabakiko duen eta beharrezkoak diren baliabideen bolumenaren arabera. Horrez gain, 20. artikuluko 2. paragrafoko zerrendako zergapeko diren kideen artean gastuak elkarbanatzearen garrantzia ere kontuan hartu beharko da. Garapen bidean dauden kideek eta beste herrialdeek eta iturriek laguntza borondatez emateko aukera ere izango dute. Mekanismo horrek gobernu demokratiko eta gardena duen sistemaren bidez lan egingo du.

Hitzarmen honen helburuen arabera, Kideen Biltzarrak finantza-baliabide horiek eskuratzeko eta erabiltzeko politika, estrategia, lehentasun programatikoak eta irizpide eta gidalerro zehatzak zehaztuko ditu; horrez gain, aldian-aldian erabileraren jarraipena eta ebaluazioa egiteko modua zehaztuko du. Kideen Biltzarrak 1. paragrafoak eragina izan dezan xedapenak adostuko ditu, finantza-mekanismoen funtzionamenduaz arduratuko den egiturari galdetu ondoren.

Kideen Biltzarrak artikuluko honen arabera martxan jarritako mekanismoen eragingarritasuna aztertuko du, 2. paragrafoan aipatzen diren irizpideak eta gidalerroak kontuan hartuta, gutxienez Hitzarmen hau indarrean jarri eta bi urtera eta hortik aurrera aldian-aldian. Azterketa hori oinarri hartuta, hala behar bada, mekanismoaren eragingarritasuna hobetzeko behar diren neurriak hartuko ditu.

Itungileek finantza-erakundeak sendotzeko aukera aztertuko dute, aniztasun biologikoaren kontserbaziorako eta erabilera jasangarrirako finantza-baliabideak errazteko.

22. ARTIKULUA: Nazioarteko beste hitzarmen batzuekin lotura

Hitzarmen honen xedapenek ez diete Itungileen nazioarteko beste edozein akordiotako eskubideei eta betebeharrei eragingo, eskubide horiek gauzatzeak eta betebehar horiek betetzeak aniztasun biologikoari kalte handia egiten dietenetan edo arriskuan jartzen duen kasuetan izan ezik.

Ingurune itsastarrari dagokionez, Itungileek Hitzarmen hau itsasoaren eskubideen arabera estatuen eskubideak eta betebeharrak kontuan hartuta aplikatuko dute.

23. ARTIKULUA: Kideen Biltzarra

Kideen Biltzarra eratu da. Nazio Batuen Ingurugiro Programaren zuzendari exekutiboak Kideen Biltzarraren lehen bilera deituko du, gehienez ere Hitzarmen hau indarrean jarri eta urtebetera. Hortik aurrera, Kideen Biltzarraren ohiko bilerak Biltzarrak lehen bileran zehaztutako maiztasunez egingo dira.

Kideen Biltzarraren ezohiko bilerak behar direnean edo kideetako batek idatziz hala eskatzen duenean egingo dira; bigarren kasuan, Idazkaritzak eskaera jaso eta hurrengo sei hilabeteetan, gutxienez kideen herenak babestu behar du eskaera hori ezohiko bilera deitzeko.

Kideen Biltzarrak aho batez erabakiko ditu bere barruko araudia, sortzen dituen organo ordezkatzailen araudia eta Idazkaritzaren finantzazioa gidatuko duen finantza-araudia. Ohiko bilera bakoitzean, Kideen Biltzarrak hurrengo bilera arteko finantza-eragiketarako aurrekontua onartuko du.

Kideen Biltzarrak Hitzarmen hau aplikatzea aztertuko du eta horretarako:

- a) 26. artikulua arabera aurkeztu behar duen informazioa emateko modua eta epeak ezarriko ditu, eta informazio hori eta gainerako organo ordezkatzailerek aurkeztutako txostenak aztertuko ditu;
- b) 25. artikulua arabera emandako aniztasun biologikoari buruzko aholkularitza zientifikoa, teknikoa eta teknologikoa aztertuko du;
- c) Dagokionaren arabera, 28. artikuluari dagozkion protokoloak aztertuko eta onartuko ditu;
- d) 29. eta 30. artikulua kontuan hartuta, Hitzarmen honi eta bere eranskinei egindako zuzenketak aztertuko eta onartuko ditu;
- e) Protokolo guztiei eta beren eranskinei egindako zuzenketak aztertuko ditu eta, hala erabakiz gero, protokoloetako kideei onar ditzaten aholkatuko die;
- f) Dagokionaren arabera, 30. artikulua kontuan hartuta, Hitzarmen honi egindako eranskin gehigarriak aztertuko eta onartuko ditu;
- g) Hitzarmen hau aplikatzeko beharrezkoak diren organo ordezkatzailak martxan jarriko ditu, bereziki aholkularitza zientifikoko eta teknikoko organoak;
- h) Idazkaritzaren bidez, Hitzarmen honen inguruko gaiei buruzkoak diren hitzarmenen organo exekutiboekin harremanetan jarriko da, beren arteko lankidetzaren egokia bultzatzeko, eta
- i) Hitzarmen honen helburuak betetzeko behar diren neurriak aztertuko eta onartuko ditu, bere aplikazioan lortutako esperientzia kontuan hartuta.

Nazio Batuek, erakunde espezializatuak, Energia Atomikoaren Nazioarteko Erakundeak eta Konbentzioko kide ez den erakunde horietako edozein estatukidek Kideen Biltzarraren saioen aldietan egoteko aukera izango du, behatzaile gisa. Gainera organismo edo organo guztiek - nazionalak, nazioartekoak, gobernuak edo gobernu kanpokoak- aniztasun biologikoaren

kontserbazioaren eta erabilera jasangarriaren inguruan eskuduntzarik badute eta idazkaritzari Kideen Biltzarrean ordezkatuta egoteko nahia jakinarazten badiote, hala onartuak izateko aukera izango dute, bertan dauden kideen herena aurka ez badago. Behatzaileen onarpena eta parte-hartzea Kideen Biltzarrak onartutako araudi batek zuzenduko du.

24. ARTIKULUA: Idazkaritza

Idazkaritza eratu da eta ondorengo betebeharrak ditu:

- a) 23. artikuluan aurreikusitako Kideen Biltzarraren bilerak antolatzea eta behar diren zerbitzuak ematea;
- b) Protokoloetan ematen zaizkion funtzioak betetzea;
- c) Hitzarmen honen arabera dituen funtzioak betetzeko aurrera eramaten dituen jardueren inguruko txostenak prestatzea, Kideen Biltzarrean aurkezteko;
- d) Nazioarteko beste organoekin izan beharreko koordinazioa segurtatzea eta, bereziki, bere funtzioak eragingarritasunez betetzeko behar diren administrazio eta kontratuzko akordioak adostea, eta
- e) Kideen Biltzarrak zehaztutako gainerako funtzioak betetzea.

Ohiko bere lehen bileran, Kideen Biltzarrak Idazkaritza izendatuko du. Idazkaritza hori Hitzarmen honetan zehazten diren funtzioak betetzeko prest dauden nazioarteko erakunde eskudunen artean aukeratuko da.

25. ARTIKULUA: Aholkularitza zientifikoko, teknikoko eta teknologikoko organo ordezkatzailerak

Honen bidez aholkularitza zientifikoko, teknikoko eta teknologikoko organo ordezkatzailerak eratu da, eta bere lana Kideen Biltzarrari eta, hala dagokionean, bere organo ordezkatzailerai Hitzarmena aplikatzeari buruzko aholkularitza ematea da. Organo honetan kide guztiek parte har dezakete eta diziplina anitzekoa da. Dagokion espezialitatearen alorretan eskuduntza duten gobernuen ordezkariak osatuko dute. Aldian-alde bere lanaren alde guztiei buruzko txostena aurkeztuko dio Kideen Biltzarrari.

Kideen Biltzarraren zuzendaritzapean, horretarako ezarritako gidalerroen arabera eta Biltzarrak berak hala eskatuta, organo honek:

- a) Aniztasun biologikoaren egoeraren ebaluazio zientifikoak eta teknikoak emango ditu;
- b) Hitzarmen honen xedapenen arabera hartutako neurrien eraginaren ebaluazio zientifikoak eta teknikoak prestatuko ditu;
- c) Aniztasun biologikoaren kontserbazioarekin eta erabilera jasangarriarekin lotura duten eta berritzaileak, eragingarriak eta aurreratuagoak diren teknologia eta ezagutza espezializatuak identifikatuko ditu eta teknologia horien garapena edota transferentzia sustatzeko moduei buruzko aholkularitza emango du;

- d) Aniztasun biologikoaren kontserbazioarekin eta erabilera jasangarriarekin lotura duten ikerketen eta garapenaren inguruan programa zientifikoei eta nazioarteko lankidetzari buruz aholkularitza emango du, eta
- e) Kideen Biltzarrak eta bere organo ordezkatzailleek egindako izaera zientifikoko, teknikoko, teknologikoko eta metodologikoko galderari erantzunak eman behar dira.

Aurrerago, Kideen Biltzarrak organo honen funtzioak, agintaritza, antolaketa eta funtzionamendua hedatu ahal izango ditu.

26. ARTIKULUA: Txostenak

Itungileek, Kideen Biltzarrak zehaztutako maiztasunarekin, Hitzarmen honen xedapenak aplikatzeko onartutako neurriei eta Hitzarmenaren helburuak lortzeko neurri horien eragingarritasunari buruzko txostena aurkeztuko diote Kideen Biltzarrari.

27. ARTIKULUA: Eztabaidak konpontzea

Hitzarmena interpretatzeko edo aplikatzeko garaian Itungileen artean eztabaida sortuz gero, interesa duten aldeak negoziazioaren bidez konpontzen saiatuko dira.

Kide interesatuek negoziazioaren bidez akordiorik lortzen ez badute, elkarrekin inoren bitartekaritza eskatzeko aukera izango dute.

Konbentzioa berresteko, onartzeko edo onesteko edo berari atxikitzeko garaian edo hortik aurrera edozein momentutan, estatuek edo ekonomia-integrazio lurralde mailako erakundeek gordailuzainari aurkeztutako idatzi baten bidez deklarazioa egiteko aukera izango dute. Artikulu honen 1. edo 2. paragrafoetan adierazitakoaren arabera konpondu gabeko ezabaiden kasuetan, ondoren aipatzen diren irtenbide bat ala biak onartu beharko dira, nahitaez:

- a) II. eranskineko 1. zatian ezarritako prozeduraren arabera arbitrajea;
- b) Eztabaida Nazioarteko Justizia Gorteari aurkeztea.

Artikulu honen 3. paragrafoan adierazitakoaren arabera eztabaidako kideek prozedura berbera edo prozedura batere onartu ez badute, eztabaida II. eranskinaren 2. zatiaren arabera konpontzeari ekingo zaio, kideek besterik adosten ez badute behintzat.

Artikulu honetako xedapenak edozein protokolutan aplikatuko dira, protokolo horretan besterik aipatzen ez bada.

28. ARTIKULUA: Protokolak onartzea

Itungileek Hitzarmen honen protokoloak formulatzeko eta onartzeko elkarlana egingo dute.

Protokoloak Kideen Biltzarraren bilera batean onartuko dira.

Idazkaritzak itungileei proposatutako edozein protokoloren testua emango die, gutxienez bilera egin baino sei hilabete lehenago.

29. ARTIKULUA: Hitzarmenari edo protokoloei zuzenketak

Edozein itungilek zuzenketak aurkeztu ahal izango dizkio Konbentzioari. Protokolo baten edozein kidek zuzenketak proposatu ahal izango dizkio protokolo horri.

Konbentzioari egindako zuzenketak Kideen Biltzarraren bilera batean onartu beharko dira. Edozein protokolori egindako zuzenketak protokolo horren kideen bileran onartuko dira. Idazkaritzak Hitzarmenari edo edozein protokolori egindako zuzenketaren testua gutxienez testu hori onar dadin proposatuko den bilera egin baino sei hilabete lehenago aurkeztu beharko die kideei, protokolo horretan besterik adierazten ez bada. Halaber, idazkaritzak Hitzarmen hau sinatzen dutenei ere emango die proposatutako zuzenketen berri.

Hitzarmenari edo edozein protokolori egindako zuzenketa-proposamenaren inguruan adostasuna lortzen ahalik eta gehien saiatuko dira kideak. Adostasuna lortzeko aukera guztiak agortu eta adostasunik lortu ez bada, azken aukera gisa, zuzenketa onartu egingo da, itungileen artean bileran dauden kideen eta boto-emaeleen bi herenak alde egonez gero. Gordailuzainak itungile guztiei aurkeztuko die, berresteko, onartzeko edo onesteko.

Zuzenketa berretsi, onartu edo onetsi izana gordailuzainari idatziz jakinaraziko zaio. Artikulu honetako 3. paragrafoaren arabera onartutako zuzenketak, onartu dituzten kideentzako, itungileen edo protokoloko kideen bi herenen berresteko, onesteko edo onartzeko bitartekoak aurkeztu diren egunetik kontatzen hasita laurogeita hamargarren egunean jarriko dira indarrean, besterik aipatzen ez bada behintzat. Hortik aurrera, gainerako kideentzako, zuzenketak onartzeko, berresteko edo onesteko bitartekoak aurkeztutako egunetik kontatzen hasita laurogeita hamargarren egunean jarriko dira indarrean.

Artikulu honetan, "bertan dauden kideak eta boto-emaeleak" baiezeko edo ezezko botoa ematen duten eta une horretan bertan dauden kideak dira.

30. ARTIKULUA: Eranskinak onartzea eta zuzenketak egitea

Hitzarmen honen edo edozein protokoloren eranskinak Hitzarmenaren edo protokolo horren zati dira eta berariaz aurkakoa aipatzen ez bada, Hitzarmenari edo bere protokoloei egindako edozein erreferentziatan eranskinak ere sartzen dira. Eranskin horiek gai zientifikoen eta teknikoen ingurukoak eta prozedurazko eta administrazioko gaien ingurukoak bakarrik izango dira.

Beren eranskinen inguruan, edozein protokolotan aurkakoa adierazten ez den bitartean, Hitzarmen honen edo protokolen eranskin osagarriak proposatzeko, onartzeko eta indarrean jartzeko ondorengo prozedura jarraituko da:

- a) Hitzarmen honen eta edozein protokoloren eranskinak 29. artikuluan adierazitako prozeduraren arabera proposatuko eta onartuko dira.
- b) Hitzarmen honen eranskin osagarria edo kide diren protokoloko edozein eranskin onartu ezin duten kideek gordailuzainari jakinaraziko diote, gordailuzainak eranskina onartu dela jakinarazi duen egunetik urtebeteko epean. Gordailuzainak lehenbailehen emango die gainerako kideei jasotako jakinarazpenaren berri.

Kideek edozein unetan atzera boto ahal izango dute aurreko adierazpena eta, kasu horretan, kide horren lurraldean eranskinak artikuluko honen c) puntuari adierazten denaren arabera jarriko dira indarrean.

- c) Gordailuzainak onarpena jakinarazi eta urtebeteko epea amaitzen denean, paragrafo honen b) puntuaren arabera adostasuneko jakinarazpena egin ez duten Hitzarmen honetako edo protokoloaren kide guztientzako jarriko da indarrean eranskina.

Hitzarmen honen edo edozein protokoloaren eranskinei egindako zuzenketa proposamena, onartzea eta indarrean jartzea Hitzarmenaren edo protokoloaren eranskinak proposatzerakoan, onartzerakoan eta indarrean jartzerakoan aplikatzen den prozedura bera jarraituz egingo da.

Eranskin berria edo eranskinari zuzenketa Hitzarmenari edo protokoloari egindako zuzenketaekin lotuta dagoenean, eranskin berria edo aldatutako eranskina ez da indarrean jarriko Hitzarmenari edo protokolo horri egindako zuzenketa indarrean jarri arte.

31. ARTIKULUA: Botoa emateko eskubidea

Artikulu honetako 2. paragrafoan aipatzen denaz aparte, Hitzarmen honen edo edozein protokoloaren itungile bakoitzak boto bakarra izango du.

Ekonomia-integratzioko lurralde mailako erakundeek, beren eskumeneko gaiak buruzko erabakietan, erakundeko eta, era berean, Hitzarmeneko edo protokoloaren zenbat kide dauden, hainbat boto izango dituzte. Erakunde horiek ez dute botoa emateko eskubiderik izango erakunde horretako estatukideren batek bere botoa erabiltzen badu, eta alderantziz.

32. ARTIKULUA: Hitzarmenaren eta bere protokoloaren arteko lotura

Estatuek edo ekonomia-integratzioko lurralde mailako erakundeek ezingo dute protokolo bateko kide izan era berean Hitzarmena sinatzen ez badute.

Edozein protokoloaren inguruko erabakiak protokolo horretako kideek bakarrik onar ditzakete. Protokoloaren bat berretsi, onartu edo onetsi ez duten edozein itungilek protokolo horren kideen bileretan behatzaile gisa parte har dezake.

33. ARTIKULUA: Sinadura

Hitzarmen hau estatu guztientzako eta ekonomia-integratzioko lurralde mailako edozein erakunderentzako zabalik egongo da Rio de Janeiron sinatu ahal izateko, 1992ko ekainaren 5etik 1992ko ekainaren 14 arte. Ondoren, New Yorkeko Nazio Batuen egoitzan sina daiteke, 1992ko ekainaren 15etik 1993ko ekainaren 4 arte.

34. ARTIKULUA: Berrestea, onartzea edo onestea

Estatuek eta ekonomia-integrazioko lurralde mailako erakundeek Hitzarmena berretsi, onartu edo onetsi egingo dute. Berresteko, onartzeko edo onesteko bitartekoak gordailuzainaren eskuetan egongo dira.

Hitzarmenaren edo bere protokoloen kide bilakatzen diren eta artikuluko honen 1. paragrafoan aipatzen diren erakunde guztien barruan estatu bat bera ere ez bada Konbentzioko kide, berei dagozkien Hitzarmenaren edo protokoloaren eginbeharrei lotuta geratuko dira. Erakunde horietako estaturen bat edo batzuk Hitzarmenaren edo protokoloaren kide badira, estatu horiei dagozkien Hitzarmenaren edo protokoloaren eginbeharrak betetzeko ardurak zehaztuko dituzte erakundeak eta kide diren estatuak. Kasu horietan, erakundeak eta kide diren estatuak ezingo dituzte Hitzarmenak edo protokoloak emandako eskubideak une berean erabili.

Artikulu honen 1. paragrafoan aipatutako erakundeek Hitzarmenak edo protokoloak araututako gaien inguruko eskuduntzen helmena adieraziko dute, berresteko, onartzeko edo onesteko beren bitartekoetan. Halaber, erakunde horiek beren eskuduntzen helmenaren inguruko edozein aldaketa nabarmen gordailuzainari jakinaraziko diote.

35. ARTIKULA: Atxikitzea

Edozein estatu eta ekonomia-integrazioko lurralde mailako edozein erakunde atxiki daiteke Hitzarmen honi eta edozein protokolori, Hitzarmena edo protokoloa sinatzeko epea amaitzen den egunetik aurrera. Atxikitze bitartekoak gordailuzainaren esku daude.

Atxikitze bitartekoetan, 1. paragrafoan aipatzen diren erakundeek Hitzarmenak edo protokoloak araututako gaien inguruko eskuntzen helmena adieraziko dute. Erakunde horiek ere beren eskuduntzen helmenaren inguruko edozein aldaketa nabarmen gordailuzainari jakinaraziko diote.

34. artikuluko 2. paragrafoko xedapenak Hitzarmen honi edo bere protokoloari atxikitzen zaizkien ekonomia-integrazioko lurralde mailako erakundeei aplikatuko zaizkie.

36. ARTIKULUA: Indarrean jartzea

Hitzarmena berresteko, onartzeko, onesteko edo atxikitze hogaia hamargarren bitartekoa aurkezten den egunetik kontatzen hasita laurogeita hamargarren egunean jarriko da indarrean Hitzarmena.

Protokoa berresteko, onesteko, onartzeko edo atxikitze behar den bitarteko kopurua aurkezten den egunetik kontatzen hasita laurogeita hamargarren egunean jarriko da indarrean protokolo hori.

Hitzarmena berretsi, onartu edo onesten duen edo berresteko, onartzeko, onesteko edo atxikitze hogaia hamargarren bitartekoa aurkeztu ondoren bere kide egin den itungile bakoitzari dagokionez, Hitzarmena laurogeita hamargarren egunean jarriko da indarrean,

kideak bere berresteko, onesteko, onartzeko edo atxikitzeko bitartekoa aurkezten duen egunetik kontatzen hasita.

Itungileak berresten, onesten edo onartzen duen kidearentzako edo berari atxikitzen zaionarentzako, eta besterik adierazten ez den bitartean, edozein protokolo, artikuluko honen 2. paragrafoan adierazitakoaren arabera indarrean jarri ondoren, itungileak berresteko, onartzeko, onesteko edo atxikitzeko bitartekoa aurkezten duen egunetik kontatzen hasita laurogeita hamargarren egunean jarriko da indarrean edo, bestela, itungile horrentzako Hitzarmen hau indarrean jartzen denean, bigarren hau geroago jarriko bada indarrean.

1. eta 2. paragrafoek eragina izan dezaten, ekonomia-integrazioko lurralde mailako erakundeak aurkeztutako bitartekoak ez dira erakunde horretako estatukideek aurkeztutakoen osagarri gisa hartuko.

37. ARTIKULUA: Erreserbak

Hitzarmen honi ezingo zaizkio erreserbak formulatu.

38. ARTIKULUA: Salaketa

Edozein itungilek edozein momentutan salatu ahal izango du Hitzarmena, gordailuzainaren aurrean jakinarazpena egin ondoren eta kide horri dagokionez Hitzarmena indarrean jarri eta bi urte pasatu ondoren.

Gordailuzainak salaketari dagokion jakinarazpena jasotzen duen egunetik urtebetera edo, bestela, jakinarazpenean adierazten den datan izango du eragina salaketa horrek.

Hitzarmena salatzen duen kideak bera ere kide den protokoloa ere salatzen duela ulertuko da.

39. ARTIKULUA: Behin-behineko finantza-xedapenak

Gutziz berregituratzen bada, 21. artikuluko xedapenak kontuan hartuta, Garapenerako Nazio Batuen Programaren, Nazio Batuen Ingurugiro Programaren eta Berreraiketarako eta Sustapenerako Nazioarteko Bankuaren Munduko Ingurugiro Funtza izango da 21. artikuluan aipatzen den egitura instituzionala, Hitzarmen hau indarrean jartzen denetik Kideen Biltzarrak lehen bilera egiten duen arte edo Kideen Biltzarrak, 21. artikulua kontuan hartuta egitura instituzional bat sortzea erabakitzen duen arte.

40. ARTIKULUA: Idazkaritzako behin-behineko akordioak

24. artikuluko 2. paragrafoan aipatzen den Idazkaritza, Hitzarmen hau indarrean jartzen denetik Kideen Biltzarrak lehen bilera egiten duen arte, Nazio Batuen Ingurugiro Programaren zuzendari exekutiboak horretarako izendatutako Idazkaritza izango da eta behin-behinekoa izango da.

41. ARTIKULUA: Gordailuzaina

Nazio Batuen idazkari nagusia da Hitzarmenaren eta bere protokoloen gordailuzaina.

42. ARTIKULUA: Jatorrizko testuak

Hitzarmen honen jatorrizko testua arabieraz, txineraz, gaztelaniaz, frantsesez, ingelesez eta errusieraz dago idatzita eta Nazio Batuen idazkari nagusiaren eskuetan daude testu horiek. Horren adierazgarri, amaieran sinatzen dutenek -horretarako behar adina eskumenekin- Hitzarmen hau sinatu dute.

Mila, bederatzehun eta laurogeita hamabiko ekainaren 5ean Rio de Janeiron egina.

I. ERANSKINA: Identifikazioa eta jarraipena

1. Aniztasun handia, espezie endemiko edo arriskuan dauden espezie asko edo basoko bizitza dituzten ekosistemak eta habitatak: espezie migratzaileentzako beharrezkoak direnak; garrantzi soziala, ekonomikoa, kulturala edo zientifikoa dutenak edo adierazgarriak edo bereziak direnak edo bilakaera-prozesuetara edo guztiz garrantzitsuak diren beste prozesu biologikoetara lotuta daudenak.
2. Mehatxatuta dauden espezieak eta komunitateak: etxeko edo landutako espezieekin ahaidetutako basoko espezieak; medikuntzaren, nekazaritzaren edo ekonomiaren aldetik garrantzia dutenak; garrantzia soziala, zientifikoa edo kulturala dutenak eta aniztasun biologikoaren kontserbazioari eta erabilera jasangarriari buruzko ikerketarako garrantzitsuak direnak, adibidez, espezie bereziak, eta
3. Garrantzi soziala, zientifikoa edo ekonomikoa duten genomen eta geneen deskripzioa.

II. ERANSKINA - 1. ZATIA: Arbitrajea

1. art. Eskatzaile den kideak, Hitzarmenaren 27. artikuluan esaten denaren arabera, eztabaida arbitrajearen bidez konpontzea erabaki dutela jakinaraziko dio Idazkaritzari. Jakinarazpenean arbitrajea eskatzearen zergatia adieraziko da eta erreferentzia berezia egingo zaio eztabaidagai den Hitzarmenaren edo protokoloaren artikuluari. Kideak eztabaidaren arrazoiaren inguruan ados jartzen ez badira, epaimahaiaren lehendakaria izendatu aurretik, epaimahai arbitralak gai hori zehaztuko du. Idazkaritzak gaiaren inguruan jasotzen duen informazio guztia Hitzarmenaren edo protokoloaren gainerako kideei jakinaraziko die.

2. 1. art. Bi kideren arteko eztabaidan, epaimahai arbitrala hiru lagunez osatuta egongo da. Eztabaidako kide bakoitzak arbitro bana izendatuko du eta bi arbitro horiek hirugarren arbitroa izendatuko dute; hirugarren arbitro hori izango da epaimahaiaren lehendakaria. Lehendakaria ez da eztabaidan dabiltzan kideen naziokoa izango eta ez du ohiko bizilekurik izango kide horien lurraldeetan. Horrez gain, ez da kide horien zerbitzura egongo eta ordu arte gaiaren inguruko beste edozein alorrez ez da arduratu.

2. 2. art. Bi kide baino gehiagoren arteko eztabaidan, interes bera dutenek arbitro bat izendatuko dute.

2. 3. art. Posturen bat hutsik geratzen bada, hasierako izendapenean adierazten den bezala beteko da leku hori.

3. 1. art. Bigarren arbitroa izendatzen denetik bi hilabetera epaimahai arbitralaren lehendakaria oraindik izendatu ez bada, Nazio Batuen idazkari nagusiak, kide batek hala eskatuta, bi hilabeteko epean izendatuko du.

3. 2. art. Eskaera jaso eta bi hilabetera eztabaidako kideren batek arbitrorik izendatu ez badu, beste kideak horren berri Nazio Batuen idazkari nagusiari eman diezaioke eta honek bi hilabeteko epean bigarren arbitroa izenda dezake.

4. art. Epaimahai arbitralak Hitzarmen honen eta edozein protokoloaren xedapenen arabera eta nazioarteko eskubideen arabera hartuko du bere erabakia.

5. art. Eztabaidako kideek bestetik erabakitzen ez badute, epaimahai arbitralak bere prozedura onartuko du.

6. art. Epaimahai arbitralak, kideek hala eskatuta, behin-behineko oinarrizko babes-neurriak hartzea aholka dezake.

7. art. Eztabaidako kideek epaimahai arbitralaren lana erraztu egin beharko dute eta, eskura ditzuten bide guztiak erabilita, ondorengo egin beharko dute bereziki:

- a. Dokumentu, informazio eta erraztasun egoki guztiak ematea, eta
- b. Hala behar denean, beren adierazpenak entzuteko lekukoei edo adituei deitzea.

8. art. Kideek eta arbitroek epaimahai arbitralaren prozeduran zehar jasotako isilpeko informazioaren izaera nahitaez babestu behar dute.

9. art. Kasuaren egoera bereziaren eraginez epaimahai arbitralak besterik erabakitzen ez badu behintzat, epaimahaiaren gastuak eztabaidako bi kideek ordainduko dituzte. Epaimahaiak gastu guztien zerrenda egingo du eta amaieran kideei aurkeztuko die.

10. art. Kideren batek eztabaidaren arrazoien artean erabakiak eragin diezaiokeen izaera juridikoko interesa badu, prozesuan parte hartu ahal izango du epaimahaiaren baimenarekin.

11. art. Epaimahaiak eztabaidaren arrazoian oinarritutako errekonbentzioak onar ditzake eta beren inguruan erabaki bat har dezake.

12. art. Epaimahai arbitralaren erabakiak, bai prozeduren ingurukoak, bai funtsaren ingurukoak, bertako kideen gehiengoaren onespenerekin hartuko dira.

13. art. Eztabaidako kideetako bat epaimahai arbitralaren aurrera agertzen ez bada edo bere auzia defendatzen ez badu, beste kideak epaimahaiari prozeduran aurrera jarraitzeko eta behin betiko erabakia hartzeko eska diezaioke. Kideetako bat agertzen ez bada edo bere auzia defendatzen ez badu, horrek ez du prozedurak jarraipena izatea eragotziko. Behin betiko erabakia jakinarazi aurretik, epaimahai arbitralak eskaera izatez eta eskubidez ongi oinarrituta dagoela egiaztatu beharko du.

14. art. Epaimahaiak bere behin betiko erabakia epaimahai hori sortu denetik bost hilabeteko epean hartuko du, epe hori gehienez ere bost hilabetez erabakitzen ez bada.

15. art. Epaimahai arbitralaren behin betiko erabakia eztabaidaren ingurukoa eta eztabaidak eragindakoa bakarrik izango da. Behin betiko erabakian, onartu duten lagunen izenak eta onartu den eguna agertuko dira. Epaimahaiaren edozein kidek bere aparteko edo aurkako iritzia gehitu diezaioke behin betiko erabakiari.

16. art. Behin betiko erabakiari ezingo zaio aurka egin, eztabaidako kideren batek aurretik apelazio-prozedura bat martxan jartzea erabaki ez badu.

17. art. Behin betiko erabakia interpetatzearen inguruan edo gauzatzeko eraren inguruan ezbaida sortzen bada, edozein kidek behin betiko erabakia onartu zuen epaimahai arbitralera jo dezake.

II. ERANSKINA - 2. ZATIA: Adiskidetzea

1. art. Eztabaidako kide batek hala eskatuta, adiskidetzeko batzordea sortuko da. Batzorde hori, kideek besterik erabakitzen ez badute, bost lagunez osatuta egongo da: horietako bi kide interesatuek izendatuko dituzte eta lehendakaria bi kide horiek aukeratuko dute.

2. art. Bi kide baino gehiagoren arteko eztabaidan, interes bera dutenek batzordeko beren kideak izendatuko dituzte elkarrekin. Bi edo kide gehiagok interes desberdinak dituztenean edo interes bera duten kideen artean adostasunik ez dagoenean, beren kideak bereizita izendatuko dituzte.

3. art. Adiskidetzeko batzordea sortzeko eskatu den egunetik bi hilabeteren buruan kideek batzordeko ordezkariak izendatu ez badituzte, Nazio Batuen idazkari nagusiak, eskaera egin zuen kideak eskatuta, bi hilabeteko epean izendatuko ditu.

4. art. Adiskidetzeko batzordeko lehendakaria batzordeko beste kideak izendatzen direnetik bi hilabetera izendatu ez badute, Nazio Batuen idazkari nagusiak, kideren batek hala eskatuta, bi hilabeteko epean izendatuko du.

5. art. Adiskidetzeko batzordeak bere erabakiak kideen gehiengoaren onespenearekin hartuko ditu. Eztabaidako kideek besterik erabakitzen ez badute, bere prozedura berak zehaztuko du. Batzordeak ebazpen-proposamena egingo du eta kideek fede onez aztertuko dute.

6. art. Adiskidetzeko batzordearen eskuduntzaren inguruko desadostasunak batzordeak konponduko ditu.